

# txintxarri



## Haragi gosez, odol egarriz

'Zombi Survival' rol jokoak arrakasta handia izan du Lasarte-Orian; 1266 pertsonak parte hartu dute / 6-7

TXINTXARRI

## Borrokarako eguna

Indarkeria matxistaren aurkako hainbat ekintza antolatu dituzte egunotan herrian / 4

TSSTko langileak  
kezkatuta daude  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiak aurkeztutako  
aurreproiektuarekin / 8

Bi domina ekarri  
dituzte LOKEko  
judokek Gipuzkoako  
Txapelketatik,  
asteburuan / 10

Zozketa!  
txintxarri

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en lan  
berriaren aurkezpen emanaldira joan nahi duzu?

TXINTXARRI-n sarrerak zozkatuko ditugu!

Eman izena azaroaren 27a baino lehen [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus), 943 37 14 48an, edota  
Ttakunen bulegoan. Whatsapp bidez ere eman dezakezu izena 688 68 35 10an.

943 37 14 48 / 688 68 35 10 • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)



USURBILGO  
OJARDO KIROLDEGIA.  
ABENDUAK 2.  
LARUNBATA  
2 saio: 16:00  
eta 18:30

Josue  
Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

[josueigeltseritza@euskalnet.net](mailto:josueigeltseritza@euskalnet.net)

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa



Manifestua irakurri ondoren taldeko argazkia atera zuten, Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI

# Gurasoak preso dituzten haurren zama ikusezina

Dispertsioak haurrengan duen eragina bistartzeko, Lasarteko Sarek manifestua kaleratu du: herriko hezkuntza alorreko 110 pertsonak baino gehiagok babestu dute. Zubimendi: "Salbuespeneko baldintzak haurren sufrikarioa areagotzen dute"

## Txintxarri

Espainiako espetxe politikak giza eskubide ugari urratzen ditu, baina orain arte gutxitan aztertu izan da haurrengan duen eragin kaltegarria. Haur eta nerabeen giza eskubideen nazioarteko eguna baliatu dute, hain zuzen, gurasoak dispertsatuta dituzten haurren sufrikarioa bistartzeko. Lasarteko Sarek antolatuta, hezkuntzarekin zerikusia duten 110 pertsonak baino gehiagok manifestu bat sinatu dute, haurren eskubideak errespetatu daitezkeen exigitzeko.

Astelehenean aurkeztu zuten manifestua, haurren eskubideen nazioarteko egunean, Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan. Manifestua irakurri, *Motxilak gora* bideoklipa aurkeztu eta *Motxilaren umea* filma eman zuten. Amaitzeko, Aritz Zubimendirekin solasaldia egin zuten. Haurrek jasaten dituzten ondorioak ikertu ditu Zubimendik *Motxiladun umeak* izenburupeko txostenean. Oso gertutik

ezagutzen du gaia: alabak hiru hilabete zituenean sartu zuten preso.

## Hiru eskakizun

Hiru "eskakizun argi" jasotzen ditu manifestuak. Batetik, haurrak dituzten gurasoei lege arrunta aplikatzen hastea. Horrek haurrak eta gurasoak denbora gehiagoz elkarrekin egotea ahalbidetuko luke, eta, ondorioz, hutsune horrek haurrengan duen eragina leunduko luke. Bestetik, jasotzen du gurasoen %33k zigorraren hiru laurdenak beteak dituztela, eta, horrenbestez, "automatikoki" euren seme-alabekin etxean beharko luketela. Azkenik, epaiturik dauden gainontzeko gurasoentzat hirugarren gradua aplikatzea eskatzen du.

Manifestura atxiki diren 110 pertsonatik erdia baino gehiago irakasleak dira; izan ere, horiek egunero ikusten dute gurasoak urrun dituzten gaztetxoekin ezinezona. Lasarteko Sarek adierazi duenez, "pozgarria" da

horrenbeste pertsonen manifestua babestea, kontuan hartuta herri mailakoa dela.

Azken hamarkadetan ez zaio haurren gaiari sakonki heldu, hainbat arrazoirengatik. Zubimendik uste du umeak babestearren hartutako erabakia dela. "Horregatik, politika horien ondorioak ikusezina izan dira orain arte". Zubimendik emandako datuen arabera, 18 urte bitarteko 113 haurrek dute aita, ama edo biak espetxean. Horietatik bederatzik dituzte biak preso; 95ek aita; seik ama; eta hiru haur preso daude kartzelan amarekin batera.

Zubimendik azaldu duenez, haurrek "zigor hirukoitza" jasotzen dute, presoek dituzten salbuespeneko baldintzen ondorioz: lehenengoz, gurasoen gabeziarekin bizi behar dira; bigarrenez, gurasoak noizbait gertu izateko itxaropena ukatzen zaie, praktikan bizi osorako espetxe zigorrak direlako; eta azkenik, milaka kilometro egin behar dituzte.

## NEURE KABUZ



JEXUX ARTETXE

## Dena politikaren menpe?

Indarkeriaren menpekoea ez litzatekeen elkarbizitza sana nahi dugula diogu. Ba, jabetu gaitezkeen ETaren ekintzak amaitu zirenetik bizi dugun aldartea baino hobea ez dugula sekula izan, eta izango al dugu inoiz? Urteetan zabalduak izuak arrasto sakonak utzi ditu gure auzo eta herrietan. Ahantzi ezinezkoak. Kanean, txolarrean edo lanean, oraindik mesfidati agertzen gara, jende jakin baten aurrean. Lan franko egin beharko dugu urteetan eragindako ankerkeriak elkarbizitzan utzitako miseria eta zauriak leuntzeko, askorentzat sendagarriak ez baita izango.

Aitor dezagun, lehenengo eta behin, etorkizunari begirako bizikidetzaren berriak zoladura etiko irmoa behar duela. Elkarrekin bizi garen guztiok partekatuta behar duguna. Bizikidetzaren berriak izan nahi dugun giza-bakoitzaren bizia eta biziera duina segurtatzeko baliagarria beharko lukeen oinarria izan behar dena. Segurtasun horrek, ezinbesteko duen irmotasunaz gainera, iraungarria behar du izan. Beraz, politikari bakarrik ezin zaio eginkizun hori egotzi. Politika, izaeraz, eremu igarokorra da, alderdien arteko lehia taktizistaren menpe baitago. Horregatik, bizikidetzaren funtsa diren giza-balioak ezin ditugu axolagabe utzi politika gorabeheratsuen azpian. Aitzitik, giza-balioak biltzen dituen etikak mugatu egin beharko luke politikaren ekite-esparrua.

Zoru etikoa deitu ohi zaio bizikidetzaren oinarriari. Ezinbestekoa den oinarria, gaurtik aurrerako elkarbizitza normaldu nahi badugu, behinik behin. Etxea ezin daiteke teulatutik eraiki, aurrenik zoru sendoa behar du. Horretarako, ondo letorkiguke elkarrenganako fidagarritasun etikoa sortzea. Baina, urteetako kalte zuzengabea sortu dutenen autokritika etikorik gabe ez dugu lortuko konfiantza hori.

## Hamar mokadu V. pintxo bidean

Bosgarren pintxo ibilbidea egingo dute abenduaren 1etik 3ra. Aterpeko hamar tabernatan hainbat mokadu dastatzeko eta bozkatzeko aukera izango dute herritarrek.

Pintxoaren aurkezpena egin dute ostegunean. Ramon Rotetak (Roteta jatetxearen jabea) eta Jesus Nietok (Monte Igeldo jatetxeok sukalde buru) mokaduari probatu eta irabazlea aukeratu dute.



TXINTXARRI

## 'Black Friday', herritik mugitu gabe

Lasarte-Oriako hainbat dendek eskaintza bereziak izango dituzte gaur, ostiralean. Izan ere, Aterpea merkatarien elkarteak *Black Fryday* delakoa ospatuko du. Hain zuzen, elkarteak 25 dendak prezio bereziak jarriko dituzte gaurkorako.

Aterpeak jakinarazi duenez, aukera ona izango dute berezoko erosketak egiteko. Mertzuriak, arropa dendak, zatapata dendak, burdindegia eta beste dendak atxiki dira *Black Fryday* eguneko eskaintzetara.

## Gero eta erakusleho gehiago 'Biziberritzen'

Erabiltzen ez diren lokalak hartu, garbitu eta herriko dendariei eskaini haien negozioetako erakuslehoak jartzeko baliatu dituzten. Beste urte batez ekin dio Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak *Biziberritzen* egitasmoari. Eta inoiz baino denda gehiagok parte hartu dute proiektuan. Aterpeko 41 dendarik jarriko dituzte erakuslehoak hutsik dauden lokaletan. Guztira, 90 metro karratu erakusleho gehiago egongo da herrian.

# Korricolari freskagarria, 100.000 esker

**PUBLIERREPORTAJEA//** Lasarte-Oriatik Euskal Herri osora hedatu den Korricolari, euskal kola freskagarri osasuntsua, 100.000 botila baino gehiagora iritsi da

Lasarte-Oriako hainbat taberna, denda eta EROSKI supermerkatuan bada edarien artean freskagarri berezi bat, Korricolari euskal kola.

Korricolari freskagarria naturala eta osasuntsua da. Ez du azukrerik edo sakarinarik, stebia baizik. Euskal Herrian bertan ekoiztua da. Bere izenak aditzera ematen duen modura, korrikalariei omenaldi txikia egiteko sortua izan da.

Idea honen guztiaren atzean Ivan Garcia herritarra dugu. 2014. eta 2015. urteetan ideia eta produktua garatu zuen herritarrek eta 2016. urteko ekainean lehen botila merkaturatu zuen.

Geroztik pixkanaka-pixkanaka Euskal Herriko hainbat txokoetara iritsi da euskal kola

freskagarria. Lasarte-Oriaren antzera, herrietako tabernetan eta dendatan eskuragarri dago Korricolari, baita harategietan ere.

"EROSKI dendetan ere duela gutxi hasi gara Korricolari banatu eta saltzen," azpimarratu du Garciak.

Eta bere helburua orain merkaturatu gehiago irekitzea da. "Korricolari beste saltoki handietan egotea dut xede".

Hau guztia dela eta, pozik agertu da herritarra. "Oso pozik nago urte bete honetan produktuak izan duen hedapenarekin."

## Eskertzea eta gonbita

Freskagarriak izandako hedapenari esker gainera, gertaera berezia ospatuko du

Garciak, Korricolari freskagarriaren ehun milagarren botilaren ekoizpena.

Honen atzean lan handia dago eta Korricolariren arduradunak eskerrak eman nahi dizkie produktuan sinetsi duten ostalari, merkatarari eta herritarrei.

Honez gain, Korricolari euskal kola freskagarria dastatu ez duten herritarrei gonbita egiten die Garciak herriko tabernetan eskatzera edo denda eta EROSKI supermerkatuan erostera. "Bertako produktua baita".

Bestela, igandean, azaroaren 26an, Hondarribiko Endanea Garden-eko Gabonetako azokan izango da, 10:00etatik 14:00etara. Azokara hurbiltzen diren pertsonak bertan ezagutu ahaliko dute Korricolari euskal kola freskagarri berezia.



light + zero stebiarekin



**korricolari**  
Euskal Kola freskagarria

**Bezeroaren arreta edo salmenta:**

Tel.: 634 44 75 40  
@: infokorricolari@gmail.com

f Korricolari Euskal Kola freskagarria  
i Korricolarierefrescodezola

[www.korricolari.eus](http://www.korricolari.eus)

# Gaitasunen erakustaldi koloretsu eta anitza

Ilusioz eta gogoz beterik, abenduaren 2ko jaialdia prestatzen ari dira Jalguneko lagunak. Jesus Zaballos alkatearekin eta Lourdes Acevedo gizarte zerbitzuetako batzordeko lehendakariarekin batera, astearte arratsaldean eman zuten ekitaldiaren berri, klubean

## Txintxarri

**Lasarte-Orian Gai gara.** Hori da aurtengo jaialdirako Jalgune elkarteak aukeratutako leloa. Horrela eman dute ezagutzera, astearte arratsaldean egindako prentsaurrekoaren bidez.

Jalguneko kideak koloredun lepokoak jantzita, Jesus Zaballos alkatearekin eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako batzordeko lehendakariarekin batera aurkeztu zuten abenduaren 2rako prestatu duten egitaraua. Den dena, ordea, ez dute ezagutzera eman; sorpresa ugari izango dira, eta horiek jaialdian bertan ezagutu ahal izango dira.

Leloari jarraiki, gaitasunen erakusleho bihurtuko dute Manuel Lekuonako aretoa. "Oharkabean,

errepikapenaren eta errutinen ondorioz naturalak bilakatzen dira gaitasunak, eta gure nortasuna eraikitzen laguntzen digu", azaldu dute Beatriz Alonso eta Pili Bermejo begiraleek. Gauza asko egiteko gai direla azpimarratu dute, eta ez nola nahi gainera, "nahiko ondo" baizik. Gaitasun horiek guztiak erakutsiko dituzte, hortaz, abenduaren 2ko ospakizunean.

## Bizi eredu izaten lagundu

Jalguneren oinarria da herri mailan elkartaren inklusioa sustatzea, eta bide horretan, Lasarte-Oriak "bizitza eredu bat izaten lagundu dio Jalguneri".

Alonso eta Bermejok azaldu moduan, "gai gara Lasarte-Orian ogia erosteko, paseatzeko,

kontzertuetara joateko, merkatura joateko, eta beste hainbat gauza gehiago egiteko, eta aniztasunaren parte izatearen erantzukizuna herriarena ere bada, denona".

## Egitaraua

Festa eta ilusioa izango dira nagusi abenduaren 2an, Lasarte-Orian. 17:30ean, Beheko kalen emango diote hasiera arratsaldeari. Dinbi Banda batukada taldeak lagunduta, herriko kaleak girotuko dituzte, ondoren Manuel Lekuonara joateko.

18:30ean iritsiko dira kultur etxera, eta sorpresaz beteriko jaialdiari ekingo diote. Ospakizun polit bezain hunkigarria eskainiko du Jalgunek. Amaieran, familia argazkia aterako dutela iragarri dute.



Ospakizun koloretsuaz gozatu ahal izango da abenduaren 2an. TXINTXARRI



**Kenia**

**IRTEERA MAIATZEAN**  
Noaak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

**NOAOA**  
BIDAIK

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

# Indarkeria matxista ikustarazteko ekintzak

Azaroaren 25ean kontzentrazioa egingo dute Okendo plazan. Gaur, ostiralean, 'Lo que tu quieras Bernarda, y las demás ¿qué?' antzerki obra ikusteko aukera izango da, eta igandean, berriz, 'Una mujer fantástica' filma proiektatuko dute

## Txintxarri

Indarkeria matxistaren aurka hainbat ekintza egin dituzte Lasarte-Orian, eta datozen egunetan ere, igandera bitartean, izango dira beste zenbait. Astelehenean egin zuten lehena. Antonio Mercero gunean *Egurra* erakusketa zabaldu zuten. Inge Mendioroz lasarteoriatarren lana izango da ikusgai, hilaren 24ra arte. Gure egunerokotasunean isilean gorde ohi diren, baina entzuten eta ikusten ditugun indarkeria egoerak azaleratzen ditu galeriak.

Egurrezko sabaiatik datozen oihu bortitzak entzungo ditu erakusketako entzuleak. Indarkeria matxistaren lekuko izango dira, eta horren aurrean, jarrera aktibo edo pasiboa hartzeko aukera izango dute.

## Oinatz eta silueta moreak

Astelehenean bertan, oinatz moreak itsatsi zituzten herriko errepede eta kaleetan.

Horiei jarraituta, emakume itxurako silueta batzuetara irits daiteke, eta horietan indarkeria matxistaren zenbait datu irakurri daitezke.

Ostegunean, berriz, haurrentzat *Txoko lila* inauguratu zuten liburutegian. Hezkidetzan oinarritutako liburuak haurren eskura egongo dira bertan.

Ostean, Bea Egizabal ipuin kontalariak *Baziren behin... neska abenturazaleak eta mutil ameslariak* ipuina kontatu zien haurrei.

Aldi berean, Beldur Barik bideo lehiaketako sari banaketa ere egin zen, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

## Antzerkia, kontzentrazioa eta filma

Gaurtik igandera bitarte, indarkeria matxistaren aurkako ekintzek jarraipena izango dute.

Emakumeen Zentro Zibikoko *Makelur* taldearen eskutik, *Lo que tú quieras Bernarda, y las demás ¿qué?* antzerki obra ikusi ahal izango da.

Larunbatean, berriz, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunean, kontzentrazioa egingo da Okendo plazan, 11:30ean.

Ekintzen astearekin amaitzeko, *Una mujer fantástica* filma proiektatuko dute. Txilen finkatutako emakume transexual baten berri emango die ikusentzuleei.



Inge Mendioroz 'Egurra' erakusketa dago ikusgai Antonio Merceron. TXINTXARRI



Indarkeria matxista kasuen inguruko datuak ematen dituzte silueteak. TXINTXARRI



Hezkidetzan oinarritutako liburuak izango dira irakurgai Txoko lilan. TXINTXARRI

## Errefuxiatuak laguntzeko moduak, Lasarte-Oriatik

Talde Aktibistak antolatuta, errefuxiatuen gaiari heldu diote Zaporeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteek

## Txintxarri

Albistegietan presentzia galduta izanagatik, arazoa ez da leundu. Milaka eta milaka errefuxiatu daude gaur egun Grezian harrapatuta, ez aurrera ez atzera egin ezinik. Europako agintarien konpromisorik ezak norbanako eta talde ugari bultzatu ditu iheslariak laguntzera. Baita Lasarte-Orian ere. Herriko Talde Aktibistak antolatuta, mahai ingurua egin dute aste honetan errefuxiatuekin zuzenean lan egin duten hiru boluntarioekin. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak Maider

Agirrek eta Xabier Aretak eta Zaporeak taldeko Oraitz Garciak euren esperientzien berri eman zuten asteazkenean Villa Mirentxun.

Ezinegon berberak bultzatuta sortu zituzten bi elkarte horiek, errefuxiatuen krisiak goia jo zuenean. "Zerbait egin behar dugu". Aretak azaldu duenez, Ongi Etorri Errefuxiatuak iheslarietako babes eskaintza, eta gizarte kontzientziatzea du helburu. Horretarako, kalean ekitaldi ugari egiten dituzte, herritarrak kontzientziatzeko xedez.

Agirrek iazko udan Melillara egindako bidaiaren berri eman du. Euskal Herritik talde bat abiatu zen Mediterraneoaren beste aldera, bertako migratzaileen eta errefuxiatuen egoera ikuskatzeko. Espainiaren migrazio politika bertatik bertara ikusi zuten ekintzaileek. Esaterako, agiririk ez dituztenak atxikitzen dituzten zentroetara egin zuten bisita. "Berez kartzela xenofoboak dira, ez dituzten oinarrizko baldintzak betetzen".

## Zaporeak tresna gisa

Garciak Zaporeak proiektuaren sorrera azaldu du, eta Kios Greziako uhartean egindako lana kontatu. Handik igarotzen ziren iheslarietako jateko prestatzeaz arduratzen ziren boluntarioak. Baina Europako Batasunaren eta Turkiaren



Areta, Agirre eta Garcia, asteazkeneko mahai inguruan. TXINTXARRI

arteko itunaren ondorioz, errefuxiatuak harrapatuta geratu ziren uhartean, eta elkarteak epe luzera begirako elikadura emateko proiektua garatu zuen.

Kioseko lana amaitutzat eman zuten sukaldari eta beste boluntarioek, baina Grezian

jarraitzen du taldeak. Bi proiektu dituzte esku artean. Bata Patrasen: 350 errefuxiatu elikatzen dituzte. Eta bestea Atenasen: 600 errefuxiatuen mantenuaz arduratzen dira. Garcia: "Gobernuek egiten ez dutena egiten dugu".

# 'Ahobizi' eta 'Belarriprest', Euskal Herri osoan zehar

Euskal erakunde eta eragileek euskaltzaleen hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimen berria aurkeztu dute. Lasarte-Orian egindako Baietz 40 egun euskaraz! erronka oinarri hartuta, 2018an Euskal Herriko beste herrietan 11 egunetan euskaraz egingo dute

## Txintxarri

Euskaltzaleen Topaguneak, Euskarabideak, Euskararen Nafar Institutuak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bat egin dute, eta *Euskaraz 365 egun* dinamiko egitasmo berria aurkeztu dute Bilbon: *11 egun euskaraz*. Ekimenak Lasarte-Oriako *Baietz 40 egun euskaraz!* du oinarrietako bat. Horregatik, Bilboko aurkezpenean izan dira Ttakun Kultur elkarteak ordezkariek, Lasarte-Oriako esperientzia azaltzeko. Euskaltzaleak aktibatu nahi dituzte egitasmo horrekin, beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Euskalgintza sozial eta instituzionala eta beste alorretako jendeak bat egitea espero dute. Elkarlanean aurrera eramango den ekimena baita. Horretarako, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatu nahi dute *11 egun euskaraz*, Euskal Herri osoan. Horrela, egitasmoak irauten dituen 11 egun horietan Euskal Herriko herri ezberdinak *Ahobiziz* eta *Belarriprestez* beteko dira.

## Lasarte-Oriako kasua

Naiara Mujika Ttakun kultur elkarteak aurkezpenean honela azaldu du: "Lasarte-Orian



Naiara Mujika Ttakuneko ordezkaria, atzo, Bilboko aurkezpenean. TXINTXARRI

iaz egin genuen Euskararen Maratoia, eta bidean ikerketa baten babesa izan genuen; alderdi kualitatibo zein kuantitatiboak neurgai izan zituen". Ikerketaren emaitzei erreparatu gero, *ahobiziek* astebeteren ostean euskara egiteko joera nabarmen bizitu zuten. Denbora tarte esanguratsu bat igaro ondoren ere, lortutako aurrerapenak kopuru antzeko batean irauten dute, Mujikaren arabera. "Belarripresten ikuspegitik, euskaraz zuzendu zitzaizkien herritarren kopurua handia izan zen eta kasu horietan, horiek ere

euskaraz erantzuteko eta eusteko joera nabarmena izan zuten," esan du Mujikak.

Lasarte-Oriako esperientziak positibotzat jo du Mujikak. "Herritarrek euskaraz egiteko duten gogoia bistarazi du. Ekimenak talde kohesio bat sortu eta testuingurua goxotu du. Era berean, gure inguruko hiztun errealtatez ohartzeko aukera eman zigun.". Azkenik, Ttakuneko ordezkariak nabarmendu du Lasarte-Oria horrelako esperientzia bat berriro ere martxan jartzeko gogoz dagoela.



TXINTXARRI

## Mundua dastatzen

Inoiz ez dira egon hain gertu Kamerun eta Euskal Herria. Sasoeta ikastetxean, ordea, zentimetro eskas batzuetara egon dira bi lurraldeetako platerak. Urnietatik piper barrubeteak; Kamerundik, gari irinarekin egindako kruxpetak. Esku bakoitzarekin dasta zitekeen bietako edozein. Hori da AMPA guraso elkartearen helburua: Bazkari Multikulturalaren bitartez, herrialdeetako distantziak laburtzea, eta zapore zein kultura desberdinak ezagutzea. Mundua dastatzea. Arratsaldean jarraitu du festak, 2KN kafetegian. Karaoke multikulturean primeran pasa dute, mota guztietako abestiak kantatuz.



TXINTXARRI

## Musikarien eguna ospatzen

Lasarte-Oriako Musika Eskolako irakasle eta ikasleak Santa Zezilia eguna ospatu dute asteartean *Musikalean* egitasmoaren bitartez. Instrumentuak eskuetan, herriko erdiguneko kaleak girotu dituzte doinu ezagunak jo eta abestuz. Ez da musikarien egun seinalatua ospatu duen herriko talde bakarra izan; Alboka abesbatzak, esate baterako, San Pedro parrokiako igandeko meza girotu eta bere bazkideekin batera bazkaria egin zuten.

## Jaiotzen lehiaketa martxan da

Abenduaren 19 eta 20ean aurkeztu behar dira lanak

## Txintxarri

Danok Kide elkarteak ohiturari jarraikiz, jaiotzen XXV. lehiaketa antolatu du. Adinaren arabera lehia izango da. A maila, 6 eta 9 urte bitartekoa izango da, B maila, berriz, 10 eta 13 urte bitartekoa. 14 urtetik eta 17 urtera C maila izango da eta azken maila, 18 urtetik gorakoena da.

Mailaren arabera, 120 euro eta 40 euro arteko sariak jasoko dituzte lehen bi sailkatuek.

Lehiaketara aurkeztu eta onartutako lan guztiek ere saria izango dute: hamar euro.

## Baldintzak

Lanak aurkezteko baldintzak honakoak dira; 80x60cm-ko neurria izan beharko dute, eta

oinarri sendoa. Elementuak lotuak joan behar dira. Ez da onartuko aurreko urteetan aurkeztutako lanik.

Lana aurkezterakoan, gutunazal itxi batean jasoko da izena, helbidea eta harremanetarako telefono bat. Kanpoko aldean adierazi beharko da zein mailatan lehiatzen den lana. Banaka zein taldeka parte hartu ahal da.

Jaiotzak abenduaren 19an eta 20an entregatu beharko dira Danok Kide elkartearen egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13an, 17:00etatik 19:00etara.



Jaiotzak San Pedro elizan ikusgai izango dira, eta sarituak Muebles Azeptian. TXINTXARRI

# Zonbiengandik ihes betean

'Zombie Survival'  
rol jokoak larunbat  
gaua girotu zuen



Antolatzaileek aurpegiak margotu eta zombi itxura eman zieten parte hartzaile askori. TXINTXARRI



Zombi talde bat Okendo plaza atzean, rol jokoan erabat murgilduta. TXINTXARRI



Batek baino gehiagok ezin izan zion izurriteari aurre egin, zombiek harrapatu zuten eta. TXINTXARRI



Jokoaren parte hartzaileak izena ematen ari ziren unea. TXINTXARRI



Parte hartzaileak jokoa hasi aurretik ordainketak egiten, Michelingo frontoian. TXINTXARRI



Askotariko zombiak ibili ziren herriko kaleetan barrena: mojak, minionsak... TXINTXARRI



Hipodromo etorbidetik Kale Nagusira igo ziren zenbait zombi, Michelingo kirolgunetik atera eta gero. TXINTXARRI



Eliza inguruan babestu ziren pertsona asko Kale Nagusiko zombiez gorde nahian. TXINTXARRI

Hilen artetik etorritako zombiak izan dira Lasarte-Oriako kaleen jabe larunbat gauean. Asteburu honetan etorri da *Survival Zombie* ekitaldia aurrenekoz Euskal Herrira, gure herrira zehazki, eta erantzuna ezin hobea izan da: 1.266 pertsonak hartu dute parte jokoan.

Lepo zegoen Okendo plaza gaueko hamaika t'erdietan. Horren ona izan da parte hartzaileen erantzuna, horrenbeste jendek eman du izena, ordu erdiz atzeratu behar izan zutela jokoaren hasiera. Lasai antzean zeuden goizaldera bizirik iritsi behar zuten pertsonak, Antonio Mercero gunetik gertu, ustekabean zombi oldea agertu zen arte. Haragi gosez zeuden zombiak, odol egarriz, eta pertsoneri hozka eginez asetu ziren.

WRG World Real Games enpresak bost urte daramatza *Survival Zombie*-en gisako ekitaldiak antolatzen. Aurten etorri dira aurrenekoz Euskal Herrira, eta nabaritu da. Lasarte-Oria bezalako herri txiki batera etorri dira Euskal Herri osoko pertsonak, rol joko famatu honetan parte hartzera. Diego de la Concepcion WRG enpresaren jabearen hitzetan, "oso ongi" erantzun du jendeak. Lasarte-Oriako Udala duela hiru hilabete jarri zen harremanetan beraiekin: "Nahiago ditugu herri txikiagoak gure rol-jokoa egiteko, xarma gehiago daukate. Asko gustatu zaizkigu Oriako Karmengo Amaren kapera eta Plazaolako zubia, adibidez, gure eszenak egiteko toki oso aproposak dira".

Udaletik ere balorazio "oso positiboa" egin dute. Giro "ezin hobean" gozatu ahal izan zela azpimarratu dute, eta datozen urteetan *Gazte gaua* bultzatzen jarraituko dutela jakinarazi dute.



Hainbat tokitatik etorri ziren parte hartzaileak. Guztira, 1.266 jokalarik izan dira. TXINTXARRI



Lepoko berdeekin bereiz zitezkeen zombiengandik ihesi ibili zirenak. TXINTXARRI



Javi Gonzalez eta Andoni Loinaz, TSSTko langile batzordeko kideak. TXINTXARRI

# "Murriztu ez, zabaldu egin behar da autobus zerbitzua"

**ANDONI LOINAZ** TSST-KO LANGILE BATZORDEKO KIDEA

Aldundiaren aurreproiektua "zentsugabea" dela salatu dute TSSTko langileek. Halere, uste dute geldiarazteko aukera badagoela. "Horrela ateratzen bada, berez eroriko da"

**Adrian Garcia**

TSSTko langileak kezkatu daude. Kexu dira oraingo lan baldintzez, egokiak ez direlakoan. Eta horiek konpondu beharrean, uste dute Gipuzkoako Aldundiaren autobus zerbitzuaren aurreproiektuak are gehiago estutuko dituela. Andoni Loinaz TSSTko langile batzordeko kideak proiektuak ekarriko dituen murrizketak azaldu dizkio TXINTXARRI-ri: Lasarte-Oriatik ospitaleetarako linea %46 murriztuko dute;

Lasarte-Oriatik Donostiara %25; Amarara %25; Andoainera %25; Hernanira %46; eta Tolosara %50. "Urtean 800.000 kilometro gutxiago dira".

**Hasiera batean urtarrilean jarri nahi zuten indarrean aurreproiektua.**

**"ORAIN ESTU BAGABILTZA, PENTSA MURRIZKETA GEHIAGO EGITEN BADITUZTE. LEHERTU EGINGO DA"**

**Gerora esan du Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuak maiatza arte ezingo dela indarrean jarri.**

Helegiteak jartzeko epea hamabost egun atzeratu zuten. Epeak errespetatu izan balituzte ere, urtarrilerako zaila lukete aurrera eramatea, saltsa handia sortu da eta. Nire irudipena da luzerako joko duela. Udara baino lehenago oso zaila da martxan jartzea.

**Hiru enpresak kudeatzen dute Buruntzaldeko autobus zerbitzua,**

**baina kontzesio batean bildu nahi du dena aldundiak.**

Orain hiru enpresa daude: Areizaga zeneko parte bat, Garayar eta TSST. Diputazioak Buruntzaldeko zerbitzu guztiak enpresa baten esku utzi nahi ditu. Aurreko txandan EH Bilduk atera zuenean, enpresen arteko aldi baterako enpresa bat sortu zuten. Orain ez dakit nola egingo duten, baina enpresa bakarria sortuko da.

**Diputazioak dio 30 urtetan ez dela berriro kontzesioa, eta beharra badagoela. Horrela ikusten duzue zuek?**

Aspaldi iraungita dago kontzesioa, urte hauetan guztietan luzapenak egin dituzte, bata bestearen atzetik. Duela lau urte atera zuten kontzesioa, baina helegitea jarri eta atzera bota zuten. Orain ari dira berriro. Kontzesioa berriro edo ez, guk horri ez diogu arreta jartzen. Guretzat, langile eta erabiltzaile moduan, garrantzitsua da lan baldintzak, denborak, maiztasunak eta zerbitzuak hobetzea. Kontzesioak hori ekartzen badu, primeran. Baina orain arte ikusi dugunak ez du hori erakusten, kontrakoa baizik: atzeraka goaz, karramarroak bezala.

**Kontzesioa berritzeko sektorearekin harremanetan jarri al da aldundia?**

Ez da inorekin bildu. Eta ez sektorearekin bakarrik. Ikusita eskualdeko udalek nola erreakzionatu duten [helegiteak jarri dituzte guztiek], ez dira haiekin bildu ere egin.

**Proiektua aurrera ateraz gero, kalkulatu duzue 30 bat langile kaleratuko dituztela.**

Gutxienez 30 bat langile. Hiru enpresetatik TSST da langile gehien dituen, eta pentsatzekoa da gehienak gure artekoak izango direla.

**Garmendiak esan duenez, ez dira langileak kaleratuko.**

Ikusi behar dena da zer langile subrogatuko dituzten. Zerbitzuen murrizketa bat badago, ikusteko dago udaran sartu direnekin edo ordezkapen luze bat egiten ari direnekin zer gertatzen den. Aurreproiektua ikusita, lanpostuak galduko dira.

**"BETI LEPO BETETA JOAN BEHAR AL DIRA AUTOBUSAK? PERTSONAK GARRAITZEN DITUGU"**

**Hiru enpresak batzeak eragingo al die autobus gidarien lan baldintzei?**

Hori beste istorio bat da. Orain ez gara horretan sartuko, garaia iristean helduko diogu auzi horri. Indarrak batu behar ditugu orain. Erabiltzaileei eta langileei kalte izugarria egiten die proiektuak, eta batu egin behar dugu murrizketak gerarazteko. Gero zehaztuko dugu enpresaren eta langileen arteko lan harremana. Gainera, kontua ez da murrizketak geraraztea bakarrik. Zerbitzu publikoa bermatzeko oraindik linea gehiago behar dira.

**Baina langileen lan baldintzak zuzenean eragiten diete erabiltzaileen segurtasunari.**

Bai, noski. Gidari batek puntu batetik bestera denbora jakin batean egin behar du, eta bueltan berdin. Orain bezala oso estuak badira ratioak eta maiztasunak, erabiltzaileari eragiten dio zuzenean.

**Aurreproiektua da oraindik, baina logika argia erakusten du: erabiltzaile gehien dagoen orduetan zerbitzua indartu, eta gainerakoetan murriztu.**

Marisol Garmendiak esaten du ez dela murrizketa, berrantolaketa baizik. Horrek ez dauka ez hankarik ez bururik. Lasartetik Tolosara joateko orain ordu erdi dago autobus bat, baina hori moldatu eta orduro jarri nahi dute bat. Hori ez da ordu gorien kontua; goizetik gauera murriztuko dute zerbitzua.

**Garmendiak dio linea batzuk gaidimensionatuak daudela.**

Alderantziz. Lehertuta daude. Linea gehitxo ez, motz daude. Egia da aldea dagoela ordutegiaren arabera. Baina gaueko hamarretan ere ibiltzen da jendea. Zer pentsatzen du Marisolek, beti goraino beteta joan behar duela autobusak? Zerbitzu publikoa da, jendea ari gara garraiatzen, ez fardoak.

**Erabiltzaileen partetik zer erantzun jaso duzue?**

Oso kezkatuta daude, baina erantzun oso ona jaso dugu haien partetik.

**Aukerarik ikusten al duzue aurreproiektua gerarazteko?**

Udalak, sindikatuak, langileak eta erabiltzaileak mobilizatu dira. Itxaropena beti dugu. Hau horrela ezin da atera, eta ateratzen bada, berez erori behar du. Aurreproiektua bere horretan indarrean jarriz gero, lehertu egin behar da dena. Orain estu bagabiltza, pentsa murrizketa gehiago egiten badituzte.



# Horrelako planekin, etorkizuna beste era batera ikusten da.

CA-REN GEROKOA, BANAKAKO BGA E AURREIKUSPEN-PLANAK

Egiten duzun ekarpenaren arabera,  
eskaintzen dizkizugun hiru opari  
hautako bat aukeratu ahal izango duzu.

5.000 €  
**MARTIKO**  
**Gourmet sorta**  
% 0,24 UTB

Foile-bloka:  
2 ahatearenak + 2 antzararenak  
Ahatea:  
2 konfit-izter + 1 urdaiazpikoa  
Arbequina oilba-olio birjina estra:  
½ l-ko lata bat  
Gozokia:  
1 piku-gozokia + 1 sagar-gozokia

3.000 €  
**JATA Zukugailu**  
**elektrikoa**  
% 0,26 UTB

INOX altzairuan, abiadura  
handikoa, ez labaintzeko  
sistema eta desmontagarria  
erraz garbitu ahal izateko.

1.500 €  
**ENERGY**  
**Bluetooth**  
**Music Box**  
% 0,32 UTB

Kalitate handiko soinua,  
kablerik gabe eta berriz karga  
daitheken iraupen luzeko  
bateriarekin.  
Erraz sinkronizatzen da eta  
aukera ematen du bozgorailutik  
bertatik deiei erantzuteko.

Hobaria beste  
BGA Eetatik  
intsuldaketak  
egiteagatik.

**CA CRÉDIT AGRICOLE**  
**GEROKOA, EPSV INDIVIDUAL**

Borondatezko Banakako Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundea

Hobariak kapital higigarriaren etekintzat hartzen dira eta atxikipenak egin behar zaizkie; opariak, berriz, gauzazko etekintzat hartzen dira.  
Bankoa, S.A. sustatzailea da eta Crédit Agricole Bankoa Gestión SGIC, berriz, Crédit Agricole Gerokoa, BANAKAKO BGA Eren kudeatzailea da.

**CA bankoa**  
CRÉDIT AGRICOLE

# Bi domina Gipuzkoatik

Asier Sagastik Gipuzkoako senior txapelketa irabazi du. Fermin Balda judokak ere lehiaketa ona egin du, eta brontzea eskuratu du. Gipuzkoako taldekako infantil txapelketa ere jokatu dute: dominarik gabe, baina pozik itzuli dira lasarteoriatarrek

## Txintxarri

Ongi hasi dute denboraldia LOKEko judokek Gipuzkoako Txapelketan: Asier Sagasti eta Fermin Balda seniorrak domina banarekin itzuli dira. 100 kilo azpiko kategoriako txapelduna izan da Sagasti, eta Baldak, berriz, 90 kilo azpikoan hirugarren postua eskuratu du. Hernaniko kiroldegian jokatu dute txapelketa.

Txapelketaz gozatu dute ere LOKEko zazpi judoka infantilek. Taldekako txapelketa jokatu dute, eta nahiz eta dominarik gabe itzuli, pozik da Gorka Aristegi entrenatzailea, erakutsitako judoagatik.

Bestalde, Espainian ere lehiatu dira LOKEko judokak. Valladoliden izan da Josu Olmos, Espainiako Kopan. Ezin izan du dominarik ekarri oraingoan.

Edonola ere, joan den asteburuko lehiaketak ongi etorriko zaizkie Lasarte-Oriako judokei, izan ere, asteburu honetan beste hitzordu garrantzi bat dute: Euskadiko Txapelketa jokatu dute igandean Gasteizen.



Fermin Balda eta Asier Sagasti, domina banarekin, Hernanin. LOKE JUDO



Anabel Elenok ere aurten parte hartuko du maratoiean. TXINTXARRI

## Lasarteko-Oriako hemeretzi maratoilari Donostian

Donostiako Maratoia jokatu dute igandean. Maratoi erdian hamahiru herritar lehiatuko dira, eta proba motzenezan hamar

### Txintxarri

Urteko erronka nagusia da askorentzat, hilabeteetako entrenamendu eta sakrifizioei ordaina ateratzekoa. Lasarte-Oria Bai! Krosa eta Behobia-Donostia lasterketa azken helmugarako tren geltokiak besterik ez dira izan, maratoiarri begirako prestaketa. Lasarte-Oriako hemeretzi maratoilarik dute hitzordua igande honetan Donostian, probako 42 kilometroak osatzeko.

Baina ez dira herriko atleta bakarrak izango. Izan ere, maratoiaz gain erdi maratoia

eta hamar kilometroko lasterketa jokatu dute Donostian. Eta maratoi erdian Lasarte-Oriako hamahiru korrikalari arituko dira, eta lasterketa motzenezan, berriz, hamar.

Urtetik urtera hazten joan da Donostiako maratoiko parte hartzea. 3.200 korrikalari arituko dira distantzia luzeenezan, 2.600 maratoi erdian, eta 950 hamar kilometrokoan. 7.000 inguru denera. Emakumeen presentziak ere gora egin du. Maratoiean %13 izango dira. Hiru probak kontutan hartuta, aldiz, %23.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONAL PREFERENTEA

#### Billabona KE - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Billabonan.

#### LURRALDE MAILA

#### Ostadar SKT - Goierri Gorri FK

Igandea. 16:30. Michelinen.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Bergara KE

Igandea. 14:45. Michelinen.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

#### Touring KE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:00. Errearterian.

#### KADETEEN LEHENENGO MAILA

#### Ostadar SKT A - Intxurre KKE

Larunbata. 12:45. Michelinen.

#### Idiazabal KE - Ostadar SKT B

Larunbata. 11:00. Arizkorretan, Idiazabalen.

#### INFANTIL TXIKIA SAILKATZE FASEA

#### Behobia - Ostadar SKT

Larunbata. 11:45. Irunen.

#### LEHEN INFANTIL ESKOLARTEKOA

#### Ostadar SKT C - Euskalduna

Larunbata. 11:15. Michelinen.

#### BIGARREN MAILA

#### Ardoi FE -Añorga KE

Igandea. 12:00. Zizurren.

#### Eibar - Athletic Club

Igandea. 12:30. Eibarren.

#### ARETO-FUTBOLA

#### ESTATUKO HIRUGARREN MAILA

#### Antonio Aroztegia Eguzki - Goierri KE

Larunbata. 17:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

#### GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

#### Ventanas Isu Leinoak Eguzki - Herrikide

Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

#### GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

#### Gure Txokoa - Cecilia Frutadenda

Eguzki

Ostirala. 20:30. Beran.

#### SENIOR NESKAK

#### Trumoi Taberna Eguzki - Trintxerpe

Igandea. 09:30. Kiroldegian.

#### JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA

#### Laskorain - Bar Lasarte

Larunbata. 12:00. Tolosan.

#### SASKIBALOIA

#### SENIOR LEHENENGO MAILA

#### ST Bilintx - Ostadar SKT

Ostirala. 16:00. Donostian.

#### SENIOR HIRUGARREN MAILA

#### Antigua Eluberri - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Donostian.

#### ERRENDIMENDU JUNIORRAK

#### Ostadar SKT - Bera Bera

Larunbata. 11:00. Donostian.

#### PARTIZIPAZIO JUNIORRAK

#### Ostadar SKT - Ibaeta Bera Bera

Igandean. 11:00. Kiroldegian.

#### ERRENDIMENDU KADETEAK

#### Panefilsa Take - Ostadar SKT

Larunbata. 09:00. Tolosan.

#### PARTIZIPAZIO KADETEAK

#### Ostadar SKT - Atletico San

Sebastian Aitzuri Tecnun

Larunbata. 09:30. Kiroldegian.

#### INFANTIL HANDIAK

#### Ostadar SKT - Hondarribia Ikasbasket

Igandea. 09:30. Kiroldegian.

#### INFANTIL TXIKIAK

#### Ostadar SKT - Atletico San

Sebastian

Igandea. 09:30. Kiroldegian.

#### PILOTA

#### ESKUZ BINAKA 3. MAILA

#### Intza - Intxurre

Ostirala. 20:00. Michelingo frontoian.

#### ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA

#### Babyauto Zarautz KE - Campos Univ. Ourense

Igandea. 12:00. Asti zelaian, Zarautzen.

#### OHOREZKO B MAILA

#### Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Elorrio

Larunbatean. 17:30. Michelinen.

#### 18 URTEZ AZPIKOAK


#### Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Gernika RT

Larunbata. 16:00. Michelinen.

#### HERRI LASTERKETA

#### DONOSTIAKO MARATOIA

Lasarte-Oriako 19 maratoilarik parte hartuko dute. Hamahiru korrikalari lehiatuko dira maratoi erdian, eta hamar kilometroko lasterketan, berriz, hamar. Igandea. 09:00. Donostian.



ARGIAren alde

## OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 2, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko hurrak doan)

Lan  
berriaren  
aurkezpen  
emanaldia

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak  
Usurbilgo Taldea

ARGIA

# EUSKAL JAJA'17

## AZAROAK 25, LASARTE-ORIA

- 10.00 Diana
- 11.30 Kantu-dantza Jira Txikia (Sasoetatik Okendora)
- Andatza plaza
  - Jaizkibel plaza
  - Elizatze plazan mokadu goxoa Gazte Klubekoen eskutik
  - Ilargi taberna
  - Sagardotegi plaza
  - Okendo plaza
- 14.30 Herri bazkaria (Okendo Plazan).
- Kantu kantari!
  - Bazkaloste umoretsua
- 17.00 "OKERRA HARRIA JASOTZEA". Ostolaza eta Telleriatarrak.  
Bitartean, haur eta gaztetxoentzako herri kirolak eta haurren "pilota joko" Okendon
- 18:00 Erromeria Ttiriki-Ttarrakaren eskutik
- 19:30 "Oaintxe in deu"-rekin txaranga-potea



Bazkaniko  
txartelak  
8€-tan salgai  
Jalgin eta  
Ttakunen!

*Ez ahaztu baserritarrez jantzita etortzea!*

\*Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidi Barren frontoian egingo dira



Ederki jokatu du Ostadar taldeko kadete errendimenduko taldeak Atletico San Sebastianen aurka. TXINTXARRI

## Garaipena eskutetatik ihesi egin die kadetei

Atletico San Sebastian Andatza Tecnun taldearen aurka partida ona jokatu dute. Azken minutu zirrargarria izan da. Azkenean, arerioa gailendu da. Beste taldeek porrotak jasan dituzte, 3. mailako taldeak eta junior partaidetza mailako taldeak izan ezik

### Txintxarri

Kadete errendimendu mailako taldeak bigarren itzuliko bigarren partida jokatu du Maialen Chourraut kiroldegian. Aurrean Atletico San Sebastian Andatza Tecnun taldea izan du.

Endika Marrahi entrenatzaileak partida aurretiko lana ongi egin eta Athleticok erasoan duen azkartasunaren jakitun, lehen minututik zona-defentsa ezarri du. "Atzean jarri ginen eta haien erasoak geratzea lortu genuen". Erasoan ere ongi ibili da Ostadar, eta lehen laurdena hamahirunako berdinketarekin amaitu da.

Bigarren laurdenean, Ostadarrek taktika aldatu du. Arerioei presioa egin eta baloia bereganatzen saiatu dira. Ostein, eraso azkarrak egiteko asmoz. Baina Athleticoko jokalariek azkarragoak direla erakutsi dute eta atsedendian arerioak hiru tantoko tarrea ireki du.

Hirugarren laurdenean hobetu jokatu dute Ostadarreko kadeteek eta hainbat saskiratzeren ostein, aurre hartzea lortu dute. Laurdena amaitzen ari zela, Ostadarrek 6-0ko partziala egin

eta zazpi tanto aurretik egon da.

Azken laurdenean ongi hasi da taldea hiruko saskiratze bat eginez. Tamalez, arerioak bederatzi tanto jarraian egin ditu, eta tanto batera gerturatu da. Ondorioz, azken bost minutuetan bi taldeak erasoan jokatu dute, garaipenaren bila.

Minutu baten faltan markagailuan berdinketa egon da. Orduan, Athleticok bi puntuko saskiratzea eta falta bat sartu ditu. Nahiz eta azken segundora arte gogor aritu, Ostadarrek puntu bakarria lortu du, 53-55 eta Athleticok eraman ditu jokoan zeuden bi puntuak.

Partidaren ostein, irakurketa oso positiboa egin du Endika Marrahi entrenatzaileak. "Partida oso ona egin dute jokalariek. Itzuliko partida izan da eta Donostian jokatu genuenean tarrea zabalagoa izan zen, hogeit puntukoa".

Hala ere pena du, Ostadarrek garaipena eskura izan du eta. "Taldea ongi erantzuten du, oreka lortu da eta jokalariek batzuk ederki ibili dira erasoan".

Gainontzeko taldeei dagokionez, azpimarratzekoa da bi taldek soilik poltsikoratu dituztela puntuak. Biek etxean, Maialen Chourraut kiroldegian, jokatu zuten.

### Beste emaitzak

Horietako bat hirugarren mailako taldea da. Garaipena erdietsi du Grupo EME Oiarsoren aurka, 49-45.

Bestea, junior partaidetza mailako taldea izan da. Honek 63-38 irabazi dio TAKE Orbinok taldeari.

Bestalde, senior mailako taldeak Bera Bera Gros izan du aurrez aurre, eta 30-59 galdu du.

Junior errendimendu mailako taldeak EASO Zelaia taldearen aurka norgehiagoka galdu du: 63-44.

Kadete partaidetza mailan, Ostadarrek ezin izan du ezer egin Internacional taldearen aurka (68-33).

Azkenik, Ostadarreko infantil handia partaidetza mailako taldeak Atletico San Sebastian GBC indartsua izan du aurrean eta 44-38 galdu du.

## Errugbi joko ikusgarririk ez Bera Beraren aurka

Euskal Ligako partidak jokatu dira Michelin kirol gunean. 18 eta 16 urtez azpiko eta Senio B mailako partidak dira

### Txintxarri

Babyauto Zarautz taldeak Bera Bera izan zuen aurrez aurre azaroaren 18an. Ez da partida ikusgarria izan. Babyauto Zarautzek entsegu bakarra egin du, eta puntu batengatik galdu du: 6 eta 5.

18 eta 16 urte azpiko taldeek Bilboko Universitarioaren aurka jokatu dute. Gazteen taldeak 34-14 galdu du partida. 18 azpiko taldeak, berriz, lan hobea egin du El Fangon, 10-40 irabazita.

### Euskal Liga

Larunbatean, azaroaren 25ean, Euskal Ligako partidez gozatzeko

aukera izango da Michelin zelaian, 14:30etik aurrera. 16 eta 18 urtez azpiko taldeek Gernika izango dute aurrez aurre. Senior B mailako taldeak, aldiz, Elorrio/Durangoren aurka jokatu du.

Bestetik, Beltzak taldeko Alex Sasetak eta Paola Vega Euskadiko Errugbi federakuntzak antolatzen duen teknifikazio saioan izango dira.

Hau guztiaz gain, Beltzak taldeak Eguberrietako otarra *El Cestón* zozketatuko du. Txartelak eskuragarri daude hainbat tabernatan. Errugbi eskolako jokalariek ere salduko dituzte.



OSTADAR IPAR MARTXAKO

## Arditurri bidea ezagutzen

Euskal Herriko txokoak ezagutzen jarraitzen dute Ostadar Ipar Martxako kideak, makilak eskuetan hartuta. Asteburu honetan Oartzundik Minasera doan Arditurri bidea ezagutu dute. 20 kilometro luze ditu. Dozena bat herritar animatu dira ikasturte honetako hirugarren irteeran parte hartzera. Ohi bezala, trena hartu dute goizean goiz. Gero, bidea hasterakoan, taldeetan banatu dira, ibilbidearen erdian kideetako batzuek Musikaren Museoa bisitatu dutelako. Hurrengo irteera berezia urtarrilaren 27rako daukate aurreikusita. Hendaia joateko asmoa dute.

## Kirol ginkana egin dute 'Gazte gauean'

*Gazte gauaren* barruan, saskibaloia eta areto-futbol ginkana jokatu ziren lehengo larunbatean Maialen Chourraut kiroldegian. Parte hartu zuten gazteek jaurtiketak egiten haien trebetasuna erakutsi zuten. Hoberenek sariak izan zituzten, hala nola, *Survival Zombie*-rako sarrerak edo kultura bonoak.



## ZORION AGURRAK



**Haritza**  
Zorionak guapisimo!!!!  
12 Muxu haundi Eneritz,  
ama eta aitaren  
partetik. Segi horrela.



**Aiur**  
Zorionak Pottokooo!!!!  
Orain oso handia egin  
zara 4 urterekin.  
Muxu pila bat familiaren  
partetik.



**Txapas**  
Zorionak Aizpeatxo!  
Zerbait egin beharko  
dugu ospatzeko ezta?  
Prexkura honekin  
txokolatada bat  
behintzat!! Muxu handi  
bat zure egunean!!

## JAIOTAKOAK

**Anahis Jimenez Torrecilla.** Azaroaren 20an.  
**Ander Batuecas Maillo.** Azaroaren 14an.  
**Xixili Aldasoro Carcedo.** Azaroaren 13an.

## HILDAKOAK

**Valentin Jimenez Martinez.** Azaroaren 18an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 24 URBISTONDO  
Larunbata, 25 LASA  
Igandea, 26 LASA  
Astelehena, 27 GANDARIAS-URIBE  
Astearte, 28 ORUE  
Asteazkena, 29 DEL MIGUEL  
Osteguna, 30 LASA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Echeveste Elosequi: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga,  
operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## ERRENTAN EMAN

Auto eta motoak  
gordetzeko garaje marra  
alokatzen da, Esperantza  
plazan. 659 021 945

## LANA

## ESKAERA

Etxeko lanak, garbiketa  
lanak edo adinduak  
zainduko nituzke. 674  
957 145.


Emakumea eskaintzen da  
haurrak eta helduak  
zaintzeko. Gauak barne.  
675 830 206.

Emakumea eskaintzen da  
adineko pertsonak

zaintzeko . Esperientzia  
du. Telefonoa: 687 675  
505.

Neska bat eskaintzen da  
adineko jendea zaintzeko,  
interna gisa. 600 897 758

## DAGOKIONARI



A. ARAMBURU

Goiegiko Ibarren aspaldi egindako parkearen egoera salatu nahi dugu. Itxita dago oraindik. Nahiz eta zergak, inpostuak besteek bezala ordaindu, gure auzoa bigarren mailako auzoa dirudi. Herria auzo guztietako herritarrek osatzen dugu. Beraz, eginkizunak ez ezik, eskubide berberak eskatzen ditugu.

## OHARRAK

## Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean,  
azaroaren 27an, eman ahal izango  
da odola Osasun Zentroan,  
17:30etik 20:30era. Anima zaitzte,  
odola ordezkazezina da eta odol  
falta dago!

## Gabonetako loteria

Biyak Bat elkarteak bere  
bazkideentzat Gabonetako loteria  
du. Zenbakia 71.580 da.

Nahi duenak elkarteko bulegoan  
izango du eskuragarri 10 eurotan.  
Azaroaren 30a baino lehen jaso  
behar da.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDAGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376  
181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## GUTUNAK

## Azaroaren 25a, indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko eguna

## LASARTE-MORIA

Feministontzat sekulako garrantzia duen eguna da biharkoa. Ez egutegietako zenbakiak markatzea maite dugulako, ez “politikoki zuzena” den hori defendatu nahi dugulako, ezta urtean behin soilik oroitzen garelako zergatik eta zertarako borrokatzen dugun. Aitzitik, erraietatik ateratzen zaigu indarkeria matxistaren aurkako egunaren aldarria, erraietaraino heltzen zaigulako egunero bizi dugun biolentzia hori. Zergatik da, orduan, egun hori ikusezina jendartearen begietan? Horixe da, agian, egun horren defentsa egiteko arrazoi nagusietako bat.

Agerikoa da jendarteak ez duela kontuan hartzen biharko borroka eguna. Gutxi batzuen omen da; indarkeria matxista jasan duten

horienean, edo “feminazi”/“histerika” kuadrillakoena bestela. Sistema heteropatriarkala bera da zapaltzailea, ordea, eta eroso babesten dira erasotzaileak bere altzoan.

Ustekotasunean eta ageriko erasoetan soilik oinarrituko bagina, ez genituzke hainbeste borroka egun izango geure agenda estuan. Orduan, zergatik ez dugu jartzen zalantza maiatzaren 1a? Zergatik barneratu dugu hain ongi abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela? Erosotasunarekin hautsi eta kontraesanak agerian utzi nahi ditugu Lasarte-Moriako kideok. Geure iritzi politikoa mahai gainean jartzera gatz.

Izan ere, “gutxi” horiek, ez dira gutxi. Ez gara hain gutxi. Besteak beste, matxismoak zazpi euskal herritar hil ditu azken urte honetan. Gainera, behin eta berriro entzun behar dugu jasaten ditugun erasoak ez direla “horren eraso”. Zergatik jarraitzen dugu “ustezkotasunaren”

alde egiten? Kasu bakartu gisa azaltzen dira erasotzaile “eroak”; eta biktimaren profil oso konkretu bat bultzatu ohi da. Kontua da, ordea, “ero” horiek ez daudela hain ero. Sistema politikoa, sozial, ekonomiko eta kultural honen ondorio logikoak besterik ez direla.

Inposatu diguten, eta ikasi eta erreproduzitu dugun sexu-genero sistema da, bere horretan, biolentzia. Horregatik, ezinbestekoa da heteropatriarkatuak sortzen dituen zapalkuntzaren hamaika ertzei buruz hitz egitea.

Arrazoi asko dauzkagu, gehiegi oraindik, biharko egunean kalera irten eta borrokatzeko. Salatu behar dugu akabatuak, jipoiuak, irainduak eta zapalduak gara. Eta borrokatzen jarraituko dugu zuek entzungor egin edo isilarazten saiatu arren. Borroka hau hegemoniko bihurtzea behar dugu.

Ezinbestekoa da geure borroka ildo horretan kokatzea, eta

zapalkuntzak elkar lotzen direla ulertzea. Behar dugu geure aurkako indarkeria ere mahaigaineratzea gainontzeko borroken alboan. Ez gara gutxi batzuk; biztanleriaren -Euskal Herriaren- erdia gara.

“Bat inon loturik deino, ez gara libre izango”.

## Ez murriztu areagotu baizik

## ANTONIA ADAN PEREZ

Urtero ospatzen dugu mugikortasun iraunkor edo autorik gabeko eguna, sinboliko eta jarraitutasunik gabekoa. Egunero sufritzen dugu, kaleetan eta errepedeetan, klima-aldaketaren eragile nagusietako bat: auto partikularren gehiegizko erabilera. Hala ere, garraio publikoaren mugarik gabeko indarberritzearen ordezkotza modeloa den auto indibidualaren erabileraren murrizketa ez da aurrez ikusten.

Zergatik hartzen dira kontuan soilik AHTa eta Donostiako Metroa bezalako megaproiektu garestiak eta eskaera errealki gabekoak? Megaproiektu horietarako beharrezko dirua hamarkadak martxan daraman garraio publikoari kentzen zaio, honen maiztasunak, geldialdiak eta linea berriak areagotzea aztertu ordez. Orain herriak murrizketa handiagoa edo txikiagoa sufrituko du EAJK eta PSOEk gobernatzeko diputazioetik. Ez dute aurrekonturik egiten sektore honetan enplegua eta autobus elektrikoa bultzatzeko. Ez dute ingurumenaren babesaren eta klimaren alde benetan pentsatzen. Nola joango gara ospitalera, ikastera edo lan egitera? Nola jasan ahal izango gara Tolosara? Autobus hutsek arduratzen badituzte, ardura daitezela betetzeaz, etengabeko kanpaina eta politikak egiteaz. Autobusa garraio arazo askotarako konponbidea delako, ez murriztu areagotu baizik, faborez.

# PLAZAN BAZAN



## AMaiUR, 1512

Oso aspaldi iragandako gertaera dela gogoan hartuta, badira gutxienez sei elementu irudi honetan aurkitu beharko ez genituzkeenak, gehienak artean asmatu gabeak zirelako. Zeintzuk dira?



## Arrotza

Hemen ageri diren elementuak jardun edo ofizio jakin batean erabiltzen dira normalki. Denak, salbu eta bi, Zeintzuk dira gainerakoekin bat ez datozen bi gauzak, jardun jakin horretan erabiliko ez genituzkeenak?



pelozirik eta Maripurtzitek izotzetan patinatatu nahiko lukete. Aurkituhorien eta ispilatutako irudiaren artean dauden zazpi ezberdintasunak.

## DOMINO ZATIA





Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.

Soluzioak: [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda

## SUDOKU KOLORETSUA

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

Hauk dira aukerak:



txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Erredakzioa**

Nerea Elizagirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,  
Jexux Artebe, Maider Galardi,  
Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
Aizpea Amas.

**Informatikoa**

Asier Aztiria.

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**PUBLIZITATEA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 24

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Emakumeek osaturiko Makelur Antzerki taldeak, *Lo que tu quieras, Bernarda, y las demás...¿qué?* antzezina ikusteko aukera izango da. Sarrera, 3 euro. Genero-indarkeriaren aurkako egunaren egitarauko ekintza.  
**Manuel Lekuona, 19:30ean.**

**LASARTE-ORIA Erakusketa**  
*Egurra* erakusketa, Inge Mendioroz herritarraren instalazio bat da. Bortizkeria matxistaren eta haren ondorio saminez interpelatzea eta hausnartzen jartzea da helburua. Instalazioa ikusteko azken eguna da. Genero-indarkeriaren aurkako egunaren egitarauko ekintza.  
**Antonio Mercero gunea, 17:30etatik 19:00etara.**

**ANDOAIN Erakusketa**  
Anne Broitmanen *Souires* erakusketak atek irekiko ditu abenduaren 24ra arte. Artista honek pertsonengan tristura oso presente dagoela ikusten du. Horregatik, irrifar batek sor ditzakeen indar eta testigantza bere horretan gorde nahi ditu.  
**Bastero kulturgunea, 19:00etan.**

**ANDOAIN Antzerkia**  
Yllana eta Primita Bros batu dira *The Primitals* komedia musical guztiz harrigarri eta dibertigarri hau a capella egiteko. Sarrera, 15 euro.  
**Bastero kulturgunea, 19:30ean.**

**HERNANI Sagardo Forum**  
Il Sagardo Forumeko bigarren jardunaldia inzego da.  
**Orona Ideo, 9:30etik 14:30era.**

## LARUNBATA 25

**LASARTE-ORIA Euskal Jaia**  
Euskal Jai eguna ospatuko da. Hainbat ekitaldi antolatuta dira:  
**10:00etan**, diana.  
**11:30etan**, kantu-dantza Jira, Sasotetik Okendora.  
- Andatza plaza  
- Jaizkibel plaza  
- Elizatze plaza, mokadu goxo  
Gazte Klubeko eskutik!!  
- Ilargi taberna



**LASARTE-ORIA Euskal Jaia.** Euskal giroa nagusituko da Lasarte-Oriaz. Musika, dantza eta kirolak izango dira nagusi. Goizean diana eta kantu jira, bazkaloste girotu eta umoretsua. Okerra harria jasotzeko saiakera berria, haurrentzako jokoak, erromeria eta txaranga-potea izango dira. Antolatzaileek euskal jantziak janzteko gonbita egiten diete ekintzetan parte hartu nahi duten herritarrei.  
**Lasarte-Oria erdigunea eta Okendo plaza, egun osoa**

- Sagardotegi plaza  
- Okendo plaza  
**14:30etan**, herri bazkaria, Okendo Plaza.  
- Kantu kantari!! Xumela, Hondarrabiko Olagarro eta Zarauzko Montetxio koruen emanaldia.  
- Intza Alkainen bakarriketa.  
**17:00etan**, herri-kirolak.  
- Okerra harria jasotzea  
- Haur eta gaztetxoentzako jolasak, Ostadarrek antolatua  
- Pelota partidak, Intzak antolatua  
**18:00etan**, erromeria Ttiriki Ttarrakaren eskutik.  
**19:30ean**, Oaintxe in deu!!-rekin Txaranga pote!  
**Lasarte-Oria erdigunea, egun osoa**

**LASARTE-ORIA Elkarretaratzea**  
Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, elkarretaratzea egingo da.  
**Okendo plaza, 11:30ean.**

**LASARTE-ORIA Literatura lehiaketaren sari banaketak**  
Aurtengo literatura lehiaketaren sariak banatuko dituzte.  
**Manuel Lekuona, 12:00etan.**

**USURBIL Bisitaldia**  
Joan Luis Atxegak bisita gidatua eta entzunaldi bat egingo du. MUSIKENEK eta Foru Aldundiak Gipuzkoako organoetan zehar antolatutako ibilbideko ekintza.  
**San Salvatore eliza, 10:00etan.**

**HERNANI Sagardo Lehiaketa**  
Nazioarteko sagardo lehiaketa egingo da Il Sagardo Forumean.  
**Orona Ideo, egun osoan zehar.**

## IGANDEA 26

**USURBIL Erle eguna**  
19. Erle eguna ospatuko dute:  
**9:00etik 10:00etara**, ezti eta gozogintza bilketa.  
**11:00etik 14:00etara**, erakusketa, postuetako salmenta eta marrazki lehiaketa. Bideoak Sutegin.  
**13:30ean**, Sari banaketa.  
Ezti lehiaketako irabazleak suertatzen diren eztekin errifak salgai izango dira eta zozketa egingo da.  
**Pilotalekuan, goiz osoan zehar.**

**ANDOAIN Kontzertua**  
Santa Zezilia eguna dela eta, Andoaingo Udala Musika Eskolako bandak suite desberdinez osatutako kontzertua eskainiko du. Doakoa.  
**Bastero kulturgunea, 12:30ean.**

**HERNANI Kontzertua**  
Hernaniko Musika Bandak Santa Zezilia kontzertua eskainiko du.  
**Udaletxeko arkupeak, 13:00etan.**

**URNIETA Magia**  
Txan Magoak *Inpermutik natorren artista bat naiz ni* ikuskizuna eskainiko du. Sarrera, 3 euro.  
**Sarobe, 17:30ean.**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Spark, una aventura espacial**  
Igandea: 17:00.

**Una mujer fantástica**  
Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

**Asesinato en el Orient Express**

Ostirala: 17:00, 18:05, 19:30, 20:20, 22:00, 22:35, 00:30.  
Larunbata: 17:00, 18:05, 19:30, 20:20, 22:00, 22:35, 00:30.  
Igandea: 17:00, 18:05, 19:30, 20:20, 22:00, 22:35.

**Deep**  
Ostirala: 15:50  
Larunbata: 15:50.  
Igandea: 15:50.

**El secreto de Marrowbone**  
Ostirala: 18:20, 20:15, 22:35, 00:55.  
Larunbata: 18:20, 20:15, 22:35, 00:55.

**Feliz día de tu muerte**  
Ostirala: 20:35, 22:40, 00:50.  
Larunbata: 20:35, 22:40, 00:50.  
Igandea: 20:35, 22:40.

**Handia**  
Ostirala: 15:55 (euskaraz).

Larunbata: 15:55 (euskaraz).  
Igandea: 15:55 (euskaraz).

**Liga de la Justicia**  
Ostirala: 16:30, 18:05, 19:00, 22:00, 00:40.  
Larunbata: 16:30, 18:05, 19:00, 22:00, 00:40.  
Igandea: 16:30, 18:05, 19:00, 22:00.

**Operación Cachuete 2. Misión: Salvar el parque**  
Ostirala: 16:00.  
Larunbata: 16:00.  
Igandea: 16:00.

**Oro**  
Ostirala: 00:40.  
Larunbata: 00:40.

**Thor: Ragnarok**  
Ostirala: 21:55, 00:35.  
Larunbata: 21:55, 00:35.  
Igandea: 21:55.

**Paddington 2**  
Ostirala: 15:45, 17:00 (eus.), 18:00, 19:15, 20:30.  
Larunbata: 15:45, 17:00 (eus.), 18:00, 19:15, 20:30.  
Igandea: 15:45, 17:00 (eus.), 18:00, 19:15, 20:30.

**Saw VIII**  
Ostirala: 16:00, 18:10, 20:30, 22:45, 00:50.  
Larunbata: 16:00, 18:10, 20:30, 22:45, 00:50.  
Igandea: 16:00, 18:10, 20:30, 22:45.



## LABURPENA

### Una mujer fantástica

**Zuzendaria:** Sebastián Lelio. **Gidoilariak:** Sebastián Lelio, Gonzalo Maza. **Herr:** Txile, AEB, Alemania, Espainia (2017). **Aktoreak:** Daniela Vega, Francisco Reyes, Luis Gnecco, Aline Küppenheim, Amparo Noguera, Antonia Zegers. **Iraupena:** 104 minutu

## Eskubideen aldeko borroka

Marina kamarera gaztea da eta abeslaria izan nahi du. Orlandok, bere bikoteak, hogeitaz zaharragoa da, eta inprimategi baten jabea da. Elkarrekin bizitzeko planak egiten ari dira.

Dibertsio gau batean, Mariak Orlando ospitaleko larrialdietara eramaten du, baina ospitalera iristean hiltzen da. Marina susmopean dago. Marina emakume transexuala da eta Orlandoren famiarentzat hori aberrazio bat da.

Filmeko protagonistak aurre egin beharko dio Orlandoren familiari eta gizarteari, benetan zer den erakusteko: emakume konplexua, indartsua, zintzoa... zoragarria.

Berlinalen Teddy saria eta gidoi onenaren Zilarrezko hartaren saria eskuratu zuen filmak. Donostiako Zinemaldiko 2017ko Sebastiane Latino sariaren irabazlea da. Independent Spirit sarietarako proposatua dago eta Fenix sarietarako hainbat hautagaitza ditu.

Sebastian Lelio zuzendaria, gidoilari, argazki-zuzendaria, editorea eta ekoizlea da. Bere laugarren film luzeak, *Gloria-k*, Donostiako Zinemaldiko Zinema Eraikitzen Saria irabazi zuen 2012an, baita emakumezko aktore onenaren (Paulina Garcia) Zilarrezko Hartza Berlinen ere, 2013an.

Genero-indarkeriaren aurkako egunaren egitarauko ekintza da.

## KOMIKIA



## PUBLIZITATEA



**ARAETA Sagardotegia**  
Masail eta onddo raviolia patata trufatu zuku-arekin, otarrainka salteatua eta kinoa beltza



**ARKUPE Taberna**  
Txerri-belarria plantan eteko romesku saltsarekin



**LASARTE Taberna**  
Ukondo karamelu kurruskaria



**YOLANDA Taberna**  
Sagar eta tipula karameludun sekretu iberiko milorria, karamelu gazarekin



**VIÑA DEL MAR Kafetegia**  
Ahatea Oporto erara juka bi testurarekin eta gaztaina purea



**TXARTEL Kafetegia**  
Ukondo xehetuzko hojaldiretxoa



**ABEND Garagardotegia**  
Bakailaoa saltsan piperradarekin, patata ohe gainean



**JALGI taberna**  
Bakon eta tipula karamelutuz betetako barregorriak, iberiko saltsaz lagunduta



**LAVIE Gastrotaberna**  
Foie eta fruta-dadoak jogurt eta mascarpone gainean



**BUENETXEA Kafetegi-taberna**  
Masail-iberikozko kabia Pedro Ximenez erara eta parmentier patata

# Lasarte-Oriako V. PINTXO BIDEA

## Abenduak 1, 2 eta 3

**Ostirala**  
19:00-21:00

**Larunbata**  
Eguerdia eta  
19:00-21:00

**Igandea**  
Eguerdia

Lasarte-Oria, herri gastronomikoa






PINTXO  
"ATERPEA" 2€

**Parte-hartu, 200€-ko txeketa lor dezakezu!!**

VARILUX®



Transitions®

TRANSITIONS TRATAMENDUA DUTEN  
LENTE PROGRESIBOekin, 2. LENTE PAREA

# DOAN

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan